

# TRANSIZIO EKOLOGIKOAREN IZENEAN, BERE INGURUMENA SAKRIFIKATZEN DABIL INDONESIA

Indonesiako hiriburu Jakartaen itsasoratzeari aurre egiteko eta jakartarreko nozituriko kutsadura arazoari erantzuteko, hiri erraldoi bat zerotik eraikitzen dabilta, Borneo oihan zabalean. Lekualdatzeak bideratu eta hiriburu berria bilakatuko da Nusantara izeneko sortu berria. Ekosistemaren suntsiketa eta CO2 isurketen emendio drastikoa ondorioztatu arren, “hiri ekologikotzat” dauka Gobernuak. Hori aski ez balitz, munduko gune industrial handienetarikoa eraikitzen dabil, gasaren eta petrolioaren inportazioekin bukatzeko. Hau ere “berdetzat” dauka.

## JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

**K**apitalismo berdearen iruzurraren adibide esanguratsuenen artean ditugu Indonesiako Gobernuak abiatutako bi makroproiektu: “Nusantara hiri ekologikoa” eta “Kalimantan eskualdeko industria gune berdea”. Albo-kalte sozial eta ekologikoak hain dituzte handiak, non eta koherentzia-eza gailentzen zaien kalkulu matematikoei. Alta, “berde”, “ekologiko” eta “karbono-neutro” hitzez estaliz badoaz aitzina.

Nusantara hiriari dagokionez, 2019az geroztik aipatzen zuen xede hori Gobernuak eta 2022ko urtarrilaren 18an onartu zuen Parlamentuak. Jakartaen ordez, hau izanen dute hiriburu eta instituzio politiko, finantza-bulego, funtzionario eta jakartar, guztiak dira lekuz aldatuko. Jakartatik 1.200 kilometrotara, zabalagoa den Borneo irlaren erdian kokatu dute hiriburu berria, oihan baten erdian, 2.500 kilometro koadroko eremu natural batean. “Hiri ekologikoa” izateko gisan marraztua izan da: energia berriztagarriak, auto elektrikoak, guztia oinez egiteko gisan pentsatua, oihanaren %65 berriro landaturik... 2045erako karbono-neutro izateko –isurtze bezainbat xurgatze–.

Artxipelagoko Borneo irla zabalena aukeratu izanak badu bere garrantzia, hain zuzen, itsasoaren igoerak mehatxatzen duen herria delako Indonesia. Ur-

tero hamar bat zentimetro itsasoratzen zaizkio, irla ttipiak desagerrarazi eta herritarren egunerokoa zalantzan jarrita. Gundul eta Betet ugarteak irentsi berri ditu itsasoak eta beste lauk dute epe ertain laburrean zori bera: Salah Namu, Burung, Kramat eta Kalong-ek. Itsaso mailaren igotzea bezainbat irlaren apaltzea dute arazo. Ura gehiegi eta ilegalki ponpatzearen ondorioa da: lurpeko akuiferoak idortzen ditu eta eraikuntzen zamak matatzen ditu lurzorua. Hori horrela, Jakarta urtero 10-15 zentimetro da itsasoratzen –25 zentimetro hiriaren iparraldea–.

Gainera, tsunami, sumendi, lurrikara eta uholde, mehatxaturik den hiria da, plaka tektonikoak elkar topatzen diren eremuan izanik. Mehatxu natural horiei giza aktibitateen kalteak ere gehitu behar zaizkie: 30 milioi jakartarreko eta bertako jardueren ondorioztaturiko kutsadura. Indonesiako herritarren eta jarduera ekonomikoen %55 bertan metaturik da eta hori horrela, munduko hiri kutsatuenetarikoen artean da.

## ALDATU BEHARREAN, LARRIALDIARI EGOKITZAPENA

Makroegitasmo horren analisi interesgarria egin du *Nusantara: la nouvelle capitale Indonésienne, quand la fuite climatique se substitue à la lutte* (“Nusantara: Indonesiako hiriburu berria,

klimaren aldeko borrokari gailentzen zaiolarik klimaren aurkako ihesa”) artikulu zientifikoak. Ondorioztapen tamalgarrria egiten dute ikerleek: “Parean, ekonomikoki bideragarria den proiektua da, baina problematikoa da beste arlo guztietan eta argiki erakusten digu krisi sozial eta ekologikoaren parean herriek duten ezintasuna, baita interes falta ere. Klima beroketak herritar batzuei eragiten die zuzenean. Baina pentsamoldeak eta bizi moduak aldatu ordez, nahiago dute ezer ez aldatu eta berriz hasi beste leku batean. Arazoari bizkarra erakutsiz ihes egitea da [Jakarta] lekualdatzea”.

33.000 milioi dolarreko kostua du makroproiektuak eta %19 da bakarrik diru publikoaz estalirik –%81 nazioarteko eta lekuko multinazional eta interes pribatuen esku uzteak dakarren arriskua asumitzen du beraz Indonesiako presidente Joko Widodok–. “Aberrazio” bat herritarren arabera, jakinik “gehiegi gogoetatu gabeko” erabakia izan dela –ingurumenari eta bertako populazio autoktonoei eragin kalteak ez dira aipatzen Indonesiako Kontu Auzitegiak ekainean plazaraturiko txostenean–.

Nagusiki hiru kalte ekologiko deitoratzen ditu Walhi lekuko Gobernuak Kanpoko Erakundeak. Bata, klimari dagokionez, deforestazioak eta ekosistemaren nahaspilatzeak aldaketa

